

Esther Ferrer elkarrizketan.

Beltz eta ikaragarri esnatu da 2004garreneko Abenduaren hogeia Hendaian: euria eta Ipar haizea esposatu egin dira eta badirudi elurra hasi behar duela halako batean.

Esther Parisetik etorri da, haurrak bezala, baina, Abenduan zikoinarik ez eta, tren puntual batean iritsi da bera. Hemen han baino eguraldi hobea egiten duela esan digu, hainbeste hotzik ez duela egiten, alegia. Eta harritu egiten du horrek urteko egunik beltzenetako batean. Ondoren, lagun batzuen etxean eserita, elkarrizketari heldu diogu.

Noizkoa duzu artegintzan lan egiteko erabakia?

Nik ez dut egundo artista izateko erabakirik hartu. Gure aitari pintura asko atsegin zitzaion eta batzuetan neronek laguntzen nion erakusketak ikustera. Nire ahizpa Matildek eta biok beti eduki izan dugu marrazteko joera. Gero, handitu ginenean, gure lagunak artistak izan ziren, batez ere: Amable Arias, Jorge Oteiza, Jose Antonio Sistiaga, Laura Esteve, Ruiz Balerdi, Remigio Mendiburu... Frankismoaren garaia zen eta hitzaldi guztietara joaten ginen, berdin zitzaiolarik txingurriez ala arteaz mintzatzen ziren. Ezer ez zegoen eta! Asociación Artística de Gipuzkoa delakora joaten hasi ginen eta batzordekoa ere izan nintzen Amable (Arias) presidente zela. Esan liteke Amable izan dela nire aitapontekoa. Ez daukat ahazteko harekin egindako hainbeste hitzaspertu eder... Oteiza ere erabakigarria izan zen niretzat, asko hitz egin niezazuke horretaz guztiaz... eta Jose Antonio Sistiagaz ere bai. Azken hau zen gehien mugitzen zena, eta batean eta bestean ikusitakoak kontatzen zizkigun beti. Esku artean eduki nuen John Cage-ren lehen diskoa ere hark utzi zidan. Donostiako Escuela de Libre Expresión delakoa ere, harekin sortu genuen, Freineten eruedetan oinarrituta. Eskola oso sortzailea izan nahi zuen. Elorrioren ere saiatu ginen beste bat egiten... Bai, egia da nik asko marrazten nuela baina sekula ez naiz izan nire lanen erakutsi-zalea. Artea, egiteko interesatu zait niri beti, gauzei forma ematea... Horixe da hoberena eta kitzikarriena.

Hogeita hamar urterekin, 67ko abenduan, ZAJ taldean sartu zinen.

Beti interesatu izan zait akzioaren edo ekintzaren mundua, orain performance deitzen den hori, alegia. Egun batez Sistiaga etorri zitzaidan, Parisetik etorritako bere lagun artista batzuk emakume bat behar zutela esanez. Ekitaldi baterako zen eta baietz esan nuen, jakina. Antzerkia ez da

nire pasio handienetakoa, baina gorputzarekin gauzak adierazte hori beti izan zait intereseko. Ez dakit zergatik. Hala ba, San Telmo Museoan aurkitu nituen Jose Luis Castillejos, Juan Hidalgo eta Walter Marcheti. Ekitaldiaren ostean eurekin jarraitzea eskatu zidaten, eta nik baietz.

Nik dakidala zu ez zara musikaria, ordea.

Akzioen mundua ez da derrigorrez musikariena. Ez nuen arazorik sumatu ere egin. Ekintzara arlo desberdin askotatik irits zaitezke. ZAJ-en egiten zutena ikusi nuenean, horixe zela niretzakoa iritzi nion. Marraskia bainoago, pintura bainoago, idazketa bainoago... eta horrelaxe hasi nintzen gero denon artean egiten genituen akzioak irudikatzen: *Siluetas; Intimo y persona; Huellas, espacios, sonidos; Se hace camino al andar...*

Nola izaten da sortze-lana taldean?

Sekula ez genuen elkarren arteko lanik egin. Uste dut horrexegatik iraun zuela luzaro ZAJ-ek. Ez genuen inolako zentsurarik geure artean, elkarrekin egiten genuen lan, baina aldi berean nor geure aldetik ibiltzen ginen. Egitarau erabakitze eta ekintzak jende aurrean egiteko bakarrik biltzen ginen. Gainera Walter (Marcheti) eta Juan (Hidalgo) musika konposatzen zebiltzan orduan, eta nik ere proiektu artistikoak bururatzen nituen, sekula egin ez diren horietakoak edo, behintzat, askozaz beranduago baizik egin izan direnak. Egia da musikatik abiatzen ginela, baina ni ez naiz sekula izan musikaria, artista plastikoa edota poeta. Arte-Akzioa artegintzarik demokratikoena da, ez duzu zertan espezialista izan beharrik, baina behar dena borondade irmoa da, egiteko nahia eta desira. Hortik aurrera dena asmatzen duzu, baita performancearen definizioa bera ere, baldin eta horrelako gauza bat beharrezkoa dela iruditzen bazaizu. Maiz esan ohi diet ikasleei, performanceak egiteko orduan, gehiegizko espezializaziorik ez dela komeni. Mugarik ez edukitze honek askatasun handia ematen du artearen alorrean. Ene iritzian, performancea da artegintzarik bateragileena, disziplina ezberdinak batzen baititu beregan. Kategoriak eta arauak gehien apurtzen dituen ere bera da. Performancean, anarkian bezala, ez dago ez jaun, ez Jaungoikorik.

ZAJ-en berezitasunetako bat izan da bere lanak zer diren hitzez adierazten ez saiatzea: " ZAJ, ZAJ da eta kito". Bestaldetik, ordea, loturik zaudete zeharo arte kontzeptualarekin, diskurtsoa gailentzen den artearen jarduera horrekin.

Ez nago ados. Nire iritzirako, kontzeptua beti dago diskurtsoaren gaineratik. Nire artelan bakoitzaren ostean, sekula esplikatzen ez dudan kontzeptua egoten da. Zer ulertu duzu? Ba, horixe da aurki zenezakeena. Asko mintza naiteke performanceak nolakoa izan behar lukeenari buruz, baina horrek niretzat baizik ez luke balio izango. Nahiago dut performance adina definizio egotea. Soilik erranen dizut nik maiteen dudana zera dela, nire ekintzekin diskurtsoa beharrezkoa ez den puntua ukitzera iristea. Ideia izan dadila aratza, borobila eta kito. Egia esan behar badut, egun guztia pasatzen dut nire ekintzetatik gauzak kentzen, ahalik eta argitasun handiena lortze aldera.

Duchampek in ere egiten duzue bat, oso oker ez banaiz, arteari berari ikusten diozuen probokazio gaitasunagatik.

Akzioaren munduan influentzia nagusiak hiru dira: futuristak, surrealistak eta Duchamp, jakina. Alabaina, probokazioa nik ez dut sekula helburuen artekotzat izan. Hori ez da beharrezkoa, berez probokatzen baita jendea: jartzen zara edonori denboratxo batez parez-pare begiratzen eta aski izaten da. Haserretu egingo zaizu, egonezina sortuko diozu eta benetako txinpartak sortzen dira maiz. Norberak buruan daukana, horixe da probokazioa. ZAJ-en baitan ekintzak Tao zirela, hutsaren antzekoak zirela, esaten genuen. Norberak bete dezala huts hori berak daukanarekin, bere nortasunarekin: haserraldiaz, umoreaz, politizazioaz edo ahal duenarekin. Sekula ez dut egin arte politikorik, baina Francoren garaian, dena interpretatzen zen politikaren ikuspegitik eta oso maiz, garaiko errepresio giroan, automatikoki politizatzen ziren gure ekintzak eta jendeak *!Viva la Libertad!* oihukatzen zuen. Zerbait ikusten zuten ZAJ-en ekintza haietan, bistakoa da hori. Dena den, nire ustez, erabat aske egiten den artegintza oro -erran nahi dut artistak guztiz aske pentsatzen duenean, artearenak ez besteko interesik gabe-, beti da politikoa.

Alabaina, harrigarriak gertatzen ziren zuen ekintzak.

Bistakoa da ekintzek harritu egiten zutela beren berritasunean, eta horregatik har zitezkeela probokazio gisara. Esan diezazuket zer edo zer jasanezinezko egiten zaidanean, presioa itzela denean, orduan bai, orduan egin dezaket berariaz politikoa edo probokatzaileria den lanen bat, baina niretzat askapen moduko zerbait baizik ez da izaten, garrasi bat baino ez. Kritikariek ez zuten oraindik esan zer demontre zen akzio bat, zer ulertu behar zen hartatik guztitik, eta nork bere erara hartzen zuen. Jakina, ezezagunaren aurrean, jende asko astindua sentitzen zen, ez baitzuten ulertzen eskaintzen zitzaaien hura eta

haserreturik, probokaziotzat hartzen zuten. Baina benetan, nik, bai orduan eta bai orain, nahi nuen eta nahi dudan bakarra, nire lana neuk ulertzen dudan eran egitea da, dezakedan erarik askeenean. Horregatik uste dut besteek ere askatasun maila berdinez erantzun diezaioketela nire proposamenari, nahi duten bezala interpretatuz eta nahi duten bezala erreakzionatuz.

John Cage ere aipatu beharra dago hemen, berarekin bat baitzatoz performance bat espazioan gertatzen den denbora baizik ez dela pentsatzeko orduan.

Pertsonalki ezagutu nuen Cage eta eragin handia izan du nire lanean: mundu honetako hotsak aditzen erakutsi dit. Entzuten ikasi dut berarekin, hotsen unibertsoa neurrigabeki aberastu dit eta bai maila pertsonalean eta bai maila artistikoan, bietan, eragin dit. Baina performancea zer den edo zer ez den ebazteko orduan, interesagarriena definitzeko daukan zailtasun horixe da, hain zuzen ere. Gaur egunean unibertsitateetan teorizatu egiten da horretaz guztiaz eta sarritan definizio dogmatikoak ematen dira, baina, ene aburuz, esan dizudan lez, indefinizioa da interesgarriena, edozer izan baitaiteke performacean, hori bai, beti baldintza bat bete behar du: *izan* egin behar du. Performancea zer den galdetzen didaten bakoitzean, beti erantzuten dut gauza bera, denbora, espazioa eta presentzia lantzen dituen artebidea dela, alegia.

Baina hori ez da akzioetan bakarrik gertatzen.

Egia diozu, gauza bera gertatzen da pinturan, musikan, instalazioan... Gertatzen dena da, akzioetan modu ezberdin batean uztartzen edo jokatzen direla gauza horiek guztiak. Horixe baizik ez da kontua. Akzioa zernahi izan daiteke, gainerakoei alferrikakoa iruditu dakiekeen zerbait ere bai, baina egiten duen pertsonarentzat interesgarria eta beharrezkoa da, hala ere. Atzetik etorriko dira ekintza epaituko dutenak, edozein gertaera artistikotan gertatzen den bezala, baina pinturak, esaterako, aurrekari handiak ditu, artearen berezko historiaren baitakoa da, praktika zehatz bat dago harpeetako garaitik guganaino etorria eta, performanceetan, itxura batean ez zegoen halakorik, ez zegoen erreferentziarik batere.

1996garrenean ZAJ bereiztu egin zen. Gauzak aldatu egiten al ditu bakarka sortzeak?

Ez, lehenago ere esan dizut gure lanak beti izaten zirela bakarka sortutakoak. 1996garrenean ZAJ talde bezala desagertzean, gutariko bakoitzak lanean jarraitu zuen, eta gaur ere halaxe gabilta.

Arte-objeturik sortu gabe, arte ekintzak egiten dituzu zuk, bertan txertatzen dituzularik egunerokotasunean aurkitzen ditugun objektu arruntak. Nork erosten du zure artea?

Performanceetan erabili ohi ditudan objektuak ez dira salgai egoten, askotan ez baitira neureak izaten: laga egiten dizkidate aulkiak, mahaiak... behar dudan guztia. Noizean behin etorri ohi da bildumagileren bat aulki bat erosi nahi duela esanez, baina ez dela nirea erantzuten diot, baten batek utzi digula eta, nahi baldin badu, harekin hitz egiteko, nik baino merkeago salduko diola-eta. Nireak diren objektuak ere ez ditut saltzeko. Baina performanceak nork ordaintzen dituen galdegin didazunez, instituzioak, artista elkarteak eta horrelakoak izan ohi dira ordaintzaileak. Horiek ordaindu eta ni horretatik bizi naiz, gehitxo esatea baldin bada ere, ez baitut uste inor bizi daitekeenik performanceetatik soilik. Zorionez performancegilea artista polimorfoa izan ohi da eta beste langintza batzuetatik ere ateratzen du sosa, musikatik, pinturatik, literaturatik, argazkigintzatik...

Egin baino lehen, zehaztasun ikaragarri erabaki ohi dituzu zure performanceak. Zein leku uzten diozu ikusleari?

Dena eta bat ere ez. Gaur eguneko artegintzan ikusten dudana interaktibitate hori -botoitxoari sakatu eta ttak!-, ez zait batere interesatzen eta haurkeria begitantzen zait. Ez dago ondo esatea, baina indibidualista naiz zeharo eta nerontzat egiten dut artea. Ez duk sekula pentsatzen ikusleak zer iritziko dion edo zer sentituko duen. Parte hartu nahi badu, har dezala, ez diot nik horrelakorik eragotziko, baina horretara bultzatu ere ez dut egingo.

Orduan, zergatik egiten dituzu ekintzak jende aurrean?

Lehenik eta behin nire lana horixe delako. Artearen kaxa egitean dago, eta, esan bezala, neuk nahi dudana egitea interesatzen zait eta ikusleak ere gauza bera egitea espero dut: gera dadila bertan, hala nahi badu, edo alde egin dezala, eskainitakoa ez baldin bazaio atsegin. Nirekin eskuartu nahi badu, eskuar dezala edo egin dezala erabat kontrakoa, bere erabakia baita hori, eta ez nirea. Ikuslea heldua izan ohi da eta aske da nire proposamenaren aurrean nahi duena egiteko beste.

Baina jendearen onarpenak edukiko du, ba, zerikusirik zure lanaren arrakastan.

Aurrez erabaki eta ondoren egindakoaren artean askotan egon ohi da tarte bat. Performancearen garaian ez banaiz gustura egon, pentsatu egiten dut eta gauzak aldatu egiten ditut hurrengorako. Baina nahi nuena erabaki bezala egin dudala sentitzen badut, ikuslearen iritzia ez da erabakigarria izaten. Jakina, alde narzisistari asko gustatzen zaio

zorion-agurrak jasotzea, baina hori ez da funtsezkoa. Oinarrizkoa pentsatutako hura zehaztasunez kanporatzean datza. Puntu jakin hori lortzen denean, berdin dio beste guztiak. Gehienetan nire gorputza erabiltzen dut soilik, ahotsa, mugimendua... horiexek dira gehien maite ditudan ekintzak: ahalik eta gehiena adierazi, ahalik eta gutxienarekin. Horixe da zailena eta, aldi berean, interesgarriena. Osagai gutxi erabiltzen dudanez, asmoak oso ona behar du izan, eta hori ez da beti hala gertatzen. Horregatik izango da ez naizela oso ekoizkorra.

Zure lanetan beti agertu ohi da denbora. Zergatik ez zara poeta?

Maiz gonbidatzen naute poesia jaialdietara eta beti esaten diet ez naizela poeta, ez naizela poeta sentitzen. Denborak eta nik harreman bitxi xamarrek ditugu, beti gauza guztien ondoren korrika ibiltzen naiz, ez dut jakiten gauzak noiz gertatu ziren edo zenbat irauten duten. Ohartzen bazara, nire lan askotan, denbora neurtzen duten objektu eta gaiak agertzen dira, erloju erraldoiak, hotsak, zer ordu den galdetzen duen ahots bat, zenbatzen duen beste bat... Jendeak zenbat denbora iragaiten ari den konturatzea maite dut, elkarrekin egin ditugun 15-20 minutu horiek ez direla sekula errepikatuko. Denboraren iragaitea, nire buruan, ordularian... funtsezkoa da nire lan askotan. Zenbaitetan lehengaia ere izaten da denbora. Honekin loturik, asko interesatzen zaizkit ikusleak nire lanarekiko dauzkan aurrikuspina (prebisibilateta) edota asperdura. Langai bezala, primerakoak dira horiek biak ere.

Biki monozigotikoa zara zure ahizpa Matilderekin. Diotenez, ezinezkoa da bata eta bestea bereiztea. Berdinak dituzue baita keinuak ere. Esango nuke absurdorako duzun joera horrek badituela berezko sustraiak.

Zalantzarik gabe, bikia izan ez banintz, ez nintzateke neu izango, baina ez dut uste gertaera hori erabakigarria denik nire lanean. Agian egin ditudan zenbait argazki-lanetan ikusiko da hori gehien, nire aurpegia denboran zehar bitan erdibitzen den horietan eta -psikoanalista batek baleukake lan sakonik horrekin guztiarekin!-, baina ez dut uste funtsezkoa denik. Zenbaki lehenetan oinarritutako nire lanen artean, bada bat non zenbaki lehen *bikiak* erabiltzen ditudan. Agian neu bikia izan gabe, ez nion halako gauza bati erreparatuko eta beste zenbaki batzuei buruz ariko nintzen, zenbaki palindromoei buruz, esaterako. Ez, ez dut uste garrantzizkoa denik hori, ez behintzat etxean bederatzi anaia-arreba izatea baino garrantzizkoagoa. Aulkiak atsegin ditut, esaterako, gure etxean mordoa baitzeuden gela guztietan eta haiekin ibiltzen baikin jolasean.

Eta absurdoa?

Bizi dugun mundu hau, berez da absurdoa. Arrazoi-itxurari hazka pixkat egiten badiozu, berehala agertuko zaizu absurdoa azpian. Nire lan askorekin saiatzen naiz absurdoari absurdoa gaineratzen, ea horrela zerbait ulertzera iristen naizen. Egia esan, maiz pentsatzen dut, artea egiten badut, mundua edo mundu honetan diren hainbeste mundu ulertzeko nahiak bultzatu nauela horretara.

Ezer ez duzula irakatsi nahi, diozu, hala ere, ez duzula ikuslearen hutsa bete nahi, zeure hutsunea betetzen baino ez zarela saiatzen.

Ez naiz artista predikatzailerik edo mesianikoa. Ez daukat deus erakusteko. Aitzitik, ikasteko daukadan guztiaz jabetzen naizenean, angustia moduko bat sartzen zait. Nire lanak eragiten didan atseginaz gain, baten batek gogoeta egin eta probetxu ateratzen badio, ondo baino hobeto. Inoiz gertatu egiten da, gainera, batzuetan besterik ez bada ere. Harrituta geratzen naiz halakoetan eta pozik ere bai, jakina.

Didaktismotik urrundurik zabiltzan arren, *Juguetes educativos* moduko erakusketak egin izan dituzu. Zure lanean sexismoa, kontsumismoa eta bestelakoak kritikatzan dira. Zaila da gero mezurik ez duzula bota nahi sinestea.

General serbiar batek emakumeen biolazioa guda armetako bat dela esaten duenean, eta antzeko izugarrikeriak ikusten dituzunean han hemenka eta nonahi, sumindu egiten zara barnetik. Baina nire asmoa ez da izaten mundu guztiaren bistakoa dena bistaratzea, kontu feminista batzuekin gertatzen den eran, zentzu apur bat daukan edonork ikus baitezake horiek horrela direla. Nire zenbait lanetan berariaz sartzen baditut osagai feministak, edo kritikazkoak edo beste zerbait, lehen esan bezala, ezin dudalako gehiago jasan izaten da, baina ez inori ezer erakutsi nahi diodalako edo arte *engagé* mota bat egin nahi dudalako. Egia esan ez daukat ezer arte konpromisozkoaren aurka, baina nire lotura politiko edo sozialak, nire egunerokotasunaren zati dira, manifestapenetara joaten naizenatako naiz, esaterako. Agian horregatixe ez dut hainbesteko beharrik nire lan artistikoetan berariaz halako gaiak agertzeko. Denbora askoan bestelako lanak egin behar izan ditut bizi ahal izateko. Hori txarra eta ona da aldi berean. Txarra, artetegintzari denbora ebasten diolako, eta ona, inoren menpe ez naizelako egon eta guztiz askea izan naizelako artea egiteko orduan, ez instituziorik, ez subentziorik... nahi dudana egiteko aske izan naiz beti. Alabaina, esan bezala, sorkuntzarako espazio guztiz askea lortzen duzunean, zer esango duten begira egon gabe, arte hori beti izaten da politiko.

**Azken boladan denak balio duela dirudi artearen munduan.
Zein da Esther Ferrerek gogoko duen artea gaur?**

Batez ere akzioaren munduko artistak interesatzen zaizkit: Isidoro Valcarcel Medina, Julian Blain, Boris Nieslony, Richard Martel, Elvira Santamaría... Hots-poesiaren alorrean, ostera: Serge Pey, Bernard Heidsieck, Henry Chopin, Kati Molnar... Eta beste hainbat artista, beste alor batzuetan: Concha Jerez, Eugenia Balcells, Nam June Paik, Bill Viola, Dan Graham... Baina egia da, hala ere, bazterretik bizi dudala artearen mundua. Ia ez dut ezagutzen arte kritikaririk, galeristak ere gutxi. FIAC bezalako azoketara eramaten nautenean, beharrezkoa baino ez naiz agertzen. Interesatzen zaizkidan erakusketak ikusten ditut, hori bai, beste batzuk zinemara edo kontzertuetara joaten diren bezalatsu. Seguru asko, sortzailea izan ez banintz, artelanen eroslea izango nintzen, baina ez naiz batere bildumagilea. Da Vinci bat etxean izatekotan, berehala jarriko nuke salgai.

Ez duzu, beraz, zeure baitan gordetzen arteak mundua alda dezakeela uste duen pentsamentu erromantikorik.

Ez, ez dut uste arteak mundua alda dezakeenik. Alderantzizkoa pentsatuko banu, Lascaux eta Altamirako garaietatik hona artistok dena gaizki egin dugula pentsatuko nuke, mundua nola dagoen ikusirik besterik ezin baita pentsatu. Arteak gozamen handia sor dezake, gogoeta ere bai, zenbaitetan. Beste hainbat gauzak bezala, bizitzen laguntzen du eta mundu honetan diren beste hainbat munduko atariak ireki ditzake, Huxleyk zioen eran. Gizadia den bitartean, artea biziko da. Beharrezkoa da, izan ere, frantziarrek dioten eran *il faut de tout pour faire un monde*. Nirekiko, artea da nire langintza, nire desira ere horixe da eta mundu honetan gozamen handiena ematen didana ere bai, baina nik ez dut geroarentzat sortzen, nik gaur bertarako sortzen dut. Hiltzen naizenean, nire senideek nahi dutena egin dezakete nire lanekin: eman, bota, gorde edo saldu, ahal baldin badute. Promes egiten dut ez naizela hilobitik altxatuko.

Hasier Etxeberria.

Abendua 2004

Hendaia.

(Koldo Mitxelena Kulturunearentzat)